



Euskal Herria biztanleria galtzen hasi da

Aurreikuspenen arabera, urtero 15.000-20.000 biztanle artean galduko ditu Euskal Herriak, eta, hala, hiru milioitik behera ezarriko da datorren hamarkadan biztanleria osoaren zifra.

Azken hamarkadetan bizitako hazkunde demografikoa etetear dago Euskal Herrian. Horixe diote, behintzat, argitara berri diren Hegoalderako datuek: biztanleria galtzen hasi gara eta hazkunde natural negatiboan sartzeaz gaude, hiltzen direnak jaiotzen direnak baino gehiago baitira.

Espainiako Estatistika Institutuak ezagutzera emandako behin betiko datuen arabera, 2013ko urtarrilaren 1ean 9.000 biztanle gutxiago zituen Hegoaldek aurreko urtearekin alderatuta. Euskal Herri osorako 6.535 pertsonako galera bizitu da. Kuantitatiboki galera hori ez dirudi horren larria (%0,21), baina badirudi joera negatiboa datorren hamarkada osoan mantenduko dela, 2013an baino bizkorrago beherantz egiten, gainera.

Hala, aurreikuspenei kasu eginez, hemendik 2020 urtera bitarte Euskal Herriak urtero 15.000-20.000 biztanle galdu ditzake, eta urtero 20.000tik gora 2023 urtera arte salto egingo bagenu. Horiek horrela, 2023an Euskal Herri osoak egun baino 176.000 biztanle gutxiago lituzke (2,95 milioi gutzira), alegia, gaur egungo biztanleriaren %5,7 gutxiago.

Edukia

Sarrera	1
Hazkunde naturala	2
Heriotza-tasa	2
Hausnarketa	2
Euskal Herria Europan	3
Baliabide grafikoak	4



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

www.gaindegia.org
www.basqueinfo.net

komunikazioa@gaindegia.org
943 304 365

Hazkunde natural negatiboa

2023. urtean ama izateko adinean dauden 122.000 emakume gutxiago izango ditu Hegoalde, alegia, egun baino %19,3 gutxiago

Hausnarketa

Euskal Herriaren eszenatoki demografikoa oso lotuta dago azken hamarkadetan bizitu ditugun prozesu ekonomiko nahiz sozialei. Alegia, biztanleriaren galera eta zahartzea ez dira giza tragedia baten ondorioz gertatu, erakunde anitzen erabakien (edo erabaki faltaren) ondorioz baizik.

Hala, zahartze maila altuko egoera baterantz hurbiltzen ari gara, eta horrek ondorio sozial, ekonomiko eta geopolitikoak ekarriko dizkigu. Pertsona nagusien rola eta beharrak balioan jartzeko beharraz gain, eszenatoki berri horrek bestelako beharrak ere agerian jartzen ditu, hala nola, pentsioak edota gizarte zerbitzuak. Horiei behar bezala erantzutea ezinezkoa izango da gure perspektiba ekonomiko edo demografikoekin eta dugun ahalmen instituzionalarekin. Are gutxiago lurraldetasunari dagokionean, dagoeneko biztanleria galera larria pairatzen duten zonalde geografikoak ditugunean.

Horiek horrela, ariketa zabal eta sakona egin beharra dugu biztanleria zaharkitu baten beharrei erantzun ahal izateko, beti ere, balio erantsiko ekonomia garatzen dugun bitartean eta nazio ikuspegiari erantzunez, zonaldeen hustea saihesten duen lurraldetasun politikaren alde lan egiten dugun bitartean

Iturriak:

EUROSTAT, INE eta INSEE.

Baliteke 2013an ere hil diren pertsonen kopurua jaio direnen kopurua gainditzea Euskal Herrian, jaiotze-tasaren beherakadaren eta biztanleriaren zaharkitzearen eraginez. Antza, 2014ean horixe gertatuko da ziur.

2012 urtera arte Hegoaldeko herrialde gehienek azken hamar urteotako hazkunde positiboari eutsi diote (jaiotza gehiago heriotzak baino); Bizkaian, ordea, badira urte batzuk balantzea negatiboa dutela, eta datozen urteotan joera areagotu egingo da. Gauza bera gertatuko da Gipuzkoan, 2014ean hazkunde negatiboari hasiera emango baitio herrialdeak, eta urte gutxi barru baita Arabak (2017an) eta Nafarroa Garaiak ere (2018an).

Iparralde 2001. urtean hasi zen joera negatiboa bizitzen, eta, ordutik, 3.285 biztanle galdu ditu guztira. Fenomeno honen inpaktu demografiko larriena Zuberoan gertatu da: egun 15.210 biztanle ditu, baina 2001-2012 bitartean jaiotzak baino 950 heriotza gehiago zenbatu ditu.

Jaiotzen murriztea oso lotuta dago ama izateko adinean dauden emakume kopuruaren beherakadari. Izan ere, 1980 eta 1990 hamarkadetako jaiotze krisien belaunaldikoak dira gaur egun ama izateko adinean dauden emakumeak, hortaz, gutxiago dira. Duela urte batzuk arte, kanpotik etorritako biztanleria fluxuek hutsune hori nolabait estaltzen zuten, baina gogoratu beharra dugu 2010. urtetik migrazio saldoa negatiboa dela (gehiago joaten dira etorri baino), beraz, datuek joera negatiboa islatzen digute.

Gauzak horrela, estimatzen da 2023. urtean ama izateko adinean dauden 122.000 emakume gutxiago izango dituela Hegoalde, edo beste era batera esanda, ama izateko adinean dauden gaur egun baino %19,3 emakume gutxiago egongo direla.

Heriotza-tasaren goranzko joera

Nahiz eta bizitza-itxaropena ez den askorik aldatuko, aurreikusten da heriotza-tasak gora egingo duela pixkanaka Euskal Herrian, gizartearen zaharkitzea dela-eta. Egundak, zahartze tasa %20,1ean dago (2013ko datua), baina 2023an biztanleria osoaren %25 gaindituko du.

Egun, Zuberoak du Euskal Herriko zahartze-tasarik altuena: biztanleria osoaren %25,9ak 65 urtetik gora du, eta datozen hamarkadetan ez da aurreikusten joera hori aldatzen lagunduko duten aldaketa estrukturalik. Era berean, Hegoaldeko herrialdeen artean, Araba izango da datozen hamar urteetan 65 urtetik gorako biztanleriaren hazkunde handiena biziko duena (+%6,5).

Iparralderen kasuan, zaila da hainbesteko zehaztasunez aurreikuspenak egitea; izan ere, ezin kalkula dezakegu zein migrazio-fluxu bizituko dituen Iparraldeko Frantziako Estatuarekiko nahiz munduarekiko-, ez eta horiek zahartze fenomenoan izango duten eragina ere. Hala ere, 2010eko zenbait datu jakin badakizkigu: 2010ean Pirinio Atlantikoko departamentutik kanpoko 65 urtetik gorako biztanleria fluxua positiboa izan zen, eta aurreko urtearekin alderatuta, %3,9 altuagoa izan zen gainera; era berean, Pirinio Atlantikoko departamentuko kanpoko biztanleriak ere gora egin zuen, hori bai, neurri apalagoan (+%2,9). Datuok, beste behin ere, argi erakusten digute Iparralden pertsona nagusien hazkunde gutziko biztanleriarena baino handiagoa izan dela.

**BIZTANLERIA EGUN ETA BERE PROIEKZIOA.
EUSKAL HERRIA ETA EUROPAKO ESTATUAK,
2013/2025.**

**Euskal Herria
European**

	EGUN	PROIEKZIOA:		
	2013	2015	2020	2025
EUSKAL HERRIA	3.107.851	-1,2	-4,0	-5,8 (*)
Bulgaria	7.284.552	1,1	-2,2	-5,9
Alemania	82.020.578	-1,3	-2,3	-3,6
Estonia	1.324.814	0,8	-0,1	-1,6
Polonia	38.533.299	-0,4	-0,4	-1,1
Hungaria	9.908.798	0,5	-0,1	-0,9
Malta	421.364	-2,0	-1,4	-0,9
Portugal	10.487.289	1,9	2,3	2,6
Letonia	2.023.825	8,4	5,8	2,9
Erromania	20.057.458	6,0	4,7	3,0
Europar Batasuna (27 herrialde)	502.965.165	1,0	2,3	3,2
Austria	8.451.860	0,2	1,6	3,3
Txekiar Errepublika	10.516.125	1,7	2,9	3,3
Eslovakia	5.410.836	1,8	3,1	3,5
Danimarka	5.602.628	0,5	2,1	3,7
Herbehereak	16.779.575	1,0	2,6	3,8
Finlandia	5.426.674	0,9	2,8	4,2
Grezia	11.062.508	3,5	4,2	4,5
Eslovenia	2.058.821	2,3	4,1	4,7
Lituania	2.971.905	9,2	7,0	4,8
Espainia	46.704.308	0,5	2,7	5,0
Frantzia	65.633.194	1,1	3,3	5,3
Islandia	321.857	-2,0	0,5	5,4
Liechtenstein	36.838	1,6	4,5	6,6
Belgika	11.161.642	0,7	3,9	6,7
Italia	59.685.227	3,5	5,3	6,8
Erresuma Batua	63.887.988	0,4	3,8	7,0
Txipre	865.878	-3,1	2,3	7,8
Suedia	9.555.893	1,8	5,4	8,4
Suitza	8.039.060	1,9	5,8	8,8
Irlanda	4.591.087	0,3	4,9	10,0
Norvegia	5.051.275	1,7	6,5	10,7
Luxenburgo	537.039	0,7	6,7	11,8

Europako zenbait estatutan, hala nola, Bulgaria, Alemania, Estonia edo Polonian, biztanleriaren galera gertatzea aurreikusten da 2025 urterako. Alabaina, Bulgariak bakarrik du Euskal Herriarekin parekotasuna. Euskal Herriarentzat aurreikusitako zahartze fenomenoak Alemaniaren antzekoa izango da (2025. urtean %25,1), baina ez du zer ikusirik izango EB-27 osatzen duten herrialdeen batzuekin (2025. Urterako %21,8).

Aurreikusten da EB-27-k gure zahartze mailara 2020. urtean iristea, nahiz eta bidea mantsoagoa izango den, eta, beraz, desberdintasuna handiagoa.

(*) 2023 urteari dagokion proiektzioa da.

Iturria: EUROSTAT, INE eta INSEE.

Ekoizpen propioa.

SALDO NATURALA, 2006- 2012 bitartean

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Araba	682	624	809	747	926	927	779
Gipuzkoa	1.134	953	970	880	1.091	748	385
Nafarroa Garaia	1.599	1.432	1.737	1.697	1.797	1.589	1.355
Bizkaia	-285	-232	105	-327	-203	-339	-907
Lapurdi	4	-183	-65	-88	-143	-73	-169
Nafarroa Beherea	3	-14	-65	-82	-49	-80	-95
Zuberoa	-80	-75	-72	-57	-61	-63	-114
HEGOALDEA	3.130	2.777	3.621	2.997	3.611	2.925	1.612
IPARRALDEA	-73	-272	-202	-227	-253	-216	-378
EUSKAL HERRIA	3.057	2.505	3.419	2.770	3.358	2.709	1.234

15 – 49 urte bitarteko emakumeak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Araba	77.409	77.321	77.229	77.333	76.940	76.137	75.755
Gipuzkoa	167.062	165.762	165.155	164.210	162.209	160.267	158.769
Nafarroa Garaia	148.022	147.867	150.461	151.916	152.084	151.876	151.096
Bizkaia	283.933	281.085	278.101	275.398	270.802	266.743	263.186
Lapurdi	51.771	51.962	52.137	52.155	51.924	51.924	51.924
Nafarroa Beherea	5.998	6.014	6.048	5.964	5.974	5.974	5.974
Zuberoa	2.897	2.808	2.763	2.696	2.662	2.662	2.662
HEGOALDEA	676.426	672.035	670.946	668.857	662.035	655.023	648.806
IPARRALDEA	60.666	60.784	60.947	60.814	60.560	60.560	60.560
EUSKAL HERRIA	737.092	732.819	731.893	729.671	722.595	715.583	709.366

Laguntzaileak:

